

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko legebiltzarkide Mikel Basabe Kortabarriak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, **“ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten ikastetxeek itunik ez izateari buruzko”** hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:**

ZIOA

Gaur da eguna, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait ikastetxe itunpekotan ikasleak sexuaren arabera bereizten direna. Iraganeko praktika hori ez dator bat 2/2006 Hezkuntzaren lege organikoaren 84. artikuluekin, zeinak argi esaten duen ezein kasutan ez dela sexuagatiko bereizkeriarik.

Horri gehitu behar zaio 2010eko otsailaren 24ko epai baten Epaitegi Gorenak adierazi zuela legezkoa dela itunik ez egitea sexu bereizketa egiten duten ikastetxeekin.

Ikuspegi pedagogikotik gainera, oso kontuan izan behar da eskolaren eginkizuna ez dela bakarrik ezagutzak transmititzea, jarrerak ere funtsezkoak direla eta, oro har, eskolaren eginkizun nagusietako bat dela herritar kritikoak heztea, sozietatearen baitan aktibo izango direnak, beti ere elkarbizitza sustatuz eta ezberdintasuna errespetatuz.

Berdintasunaren alde sozietate honek egin duen bidea luzea izan da, batez ere azken urteotan, baina oraindino ere ibili beharreko bidea da. Duela urte batzuk pentsa ezinak ziren neurriak, gaur egun erabat normalizat jotzen ditu euskal herritarrak. Bide horretan aurrera egiten jarraitzeko, sexuagatiko bereizkeria alde batera uztea beste urrats bat dela ulertzen dugu, eskolaren helburuekin hobeto betetzeko bidea ematen duena, gainera. Egun gutxi dira gure autonomia erkidegoan sexuagatiko bereizkeria egiten duten ikastetxeak, baina zenbait badira, eta horietako batzuk, gainera, diru publikoa jasotzen dute, hezkuntza arloan eurekin sinaturiko itunen bitartez.

Hori dela eta, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

- 1.- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ez dezala itunik sinatu ikasleak sexuaren arabera bereizten duen ezein ikastetxerekin.
- 2.- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ikasleak sexuaren arabera bereizten duen ikastetxeren batekin indarrean dagoen itunik balu, itun hori ez dezala berritu, ikastetxeak sexu-bereizketarekin jarraitzea erabakitzen badu.

Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 26an

Mikel Basabe Kortabarria

Aralar taldeko legebiltzarkidea